



EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

2021 URTEKO OROITIDAZKIA

» AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
2. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN EGITEKOAK ETA EGITURA
3. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA
4. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK EGINDAKO BILERAK
5. ERANSKINAK

1. AURKEZPENA

Uztailaren 28ko 99/2020 Dekretuaren arabera, Euskararen Aholku Batzordea (aurrerantzean EAB) Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurreikusitako harreman organoa da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko.

EAB Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, baina bere egitura organikoan txertatu gabe.

2020ko abenduaren 2an EABk etapa berri bati ekin zion, uztailaren 28an onartutako 99/2020 Dekretuaren araudipean.

Aipatu Dekretuaren 2. artikulua arabera, EABk bere jarduera gauzatzeko Batzorde Osoa eta Batzorde-atal Bereziak izango ditu.

Hori horrela, EABren Batzorde Osoak 2021ean hiru batzorde-atal berezi abian jartzea erabaki zuen. Apirilaren 26an Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia eta Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia, eta azaroaren 3an berriz, Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Berezia. Hori ez ezik, aipatu hiru batzordeen funtzionamendu araudiak onartu zituen eta kideak izendatu zituen.

Aurkezpenari amaiera emateko, esan behar da Dekretuan, besteak beste, zehazten dela EABren egitekoetako bat ekintzen urteko oroitidazkia onartzea izango dela. Oroitza honetan, beraz, EABren egitekoak gauzatzeko 2021ean burutu diren egitasmoen nahiz ekintzen gaineko informazioa emango da.

2. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN EGITEKOAK ETA EGITURA

2021. urtean kide anitzeko organo hauek izan ditu EABk:

- EABren Batzorde Osoa
- Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia
- Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia
- Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Berezia

Hauek dira **EABren Batzorde Osoaren egitekoak**, 99/2020 Dekretuan zehaztutakoaren arabera:

- Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.
- Hizkuntzari loturiko gaitan eskumena duten aginte publikoen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.
- Indarrean dagoen euskara sustatzeko plan nagusiaren garapenari eta betetzeari buruzko txostenak egitea.
- Batzorde Osoaren nahiz batzorde-atal berezien jarduera-arauak ezartzea.
- EABren urteko oroitidazkia onartzea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko ebaluazioa.
- Batzorde-atal bereziek proposamenak eta txostenak eginez gero, horiek aztertzea.
- Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

99/2020 Dekretuan zehaztutakoaren arabera, batzorde-atal berezien jarduketa EABren Batzorde Osoaren orientazio eta jarraibideei lotuko zaie; jarduketa horri buruz eskatzen dizkieten argibide guztiak eman beharko dizkiote batzorde-atal bereziek Batzorde Osoari.

Batzorde-atal berezien egiteko orokorrak dira: Batzorde Osoari laguntzea bere eginkizunetan; eta Batzorde Osoak eskatutako oinarrizko azterlanak eta txostenak egitea.

Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia

Ingurune Digitala Batzorde-atalaren helburu nagusia da Batzorde Osoari laguntzea bere eginkizunetan, bereziki ingurune digitalaren eremuari lotutakoetan. Ildo horretatik, ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera indartzeko har daitezkeen neurrien eta egin daitezkeen jardueri buruzko gomendioak egitea da bere egiteko nagusia.

Ingurune Digitala Batzorde-atalaren egiteko zehatzak dira proposamenak egitea eta gomendioak ematea honako ildo estrategiko hauei begira:

1. Ingurune digitalean euskarazko edukiak sustatzea
2. Ingurune digitalerako euskarazko tresna, aplikazio eta baliabideak sustatzea

3. Ingurune digitalean euskarari eta euskarazko baliabideei ikusgarritasuna ematea, erabilera areagotzeko
4. Zaintza teknologikoa ziurtatzea

Horretarako, Batzorde-atalak honako ekintza hauek bideratuko ditu:

- Emandako azken gomendioei jarraipena egingo zaie, eta gomendioren bat betetzeko neurriak hartu ez direnean, zuzentzeko bideak proposatuko dira.
- Ingurune digitaleko joerei erreparatuko zaie, hizkuntzari zein beste eremuei lotutakoak, beti ere, azken hauek euskararen sustapenerako lagungarriak izan daitezkeela uste bada.
- Ingurune digitaleko adituen ahotsak eta begiradak bilduko ditu batzordeak, horiek bilkuretara gonbidatuz nahiz oinarrizko azterlanak, ikerketak edo informazio-txostenak eskatuz beharra ikusten denean.
- Ibilbide berria eskainiko du.

Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia

Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Bereziaren helburuak dira hizkuntzaren (euskara) eta generoaren arteko harremanaz gogoeta egitea eta elkar sendotzeko aukeretan sakontzea; bi esparruak ukitzen dituen jakintza sustatzea, antolatzea eta garatzea; eta hizkuntza politikan genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak egitea.

Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atalak zehaztutako helburuak lortzeko honako egiteko zehatz hauek izango ditu:

1. Unibertsoa zedarritzea: hizkuntza eta generoa batzen dituen ezagutzaren eta praktiken mapa osatzea eta elikatzen jarraitzea, eta herritarren eskura jartzea, probetxua atera diezaioten.
2. Arloaren zaintza bermatzea: hizkuntza eta generoa batzen dituzten ikerketa ildo eta proiektu berriak sustatzea.
3. Gizartean egiten diren ekimenen jarraipena egin eta elkarlanerako proposamenak lantzea.
4. Hizkuntza politiken eta berdintasun politiken jardunbide eredugarriak aztertzea eta zabaltzen laguntzea.

Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Berezia

Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Bereziaren helburu nagusia da Batzorde Osoari laguntzea bere eginkizunetan, bereziki arlo sozioekonomikoaren arloan. Ildo horretatik, bere egiteko nagusia izango da eremu sozioekonomikoan euskararen erabileraren ezarpenean jauzia emateko gogoetak egitea, azterketak sustatzea eta estrategiak lantzea.

Egiteko zehatzak berriz, honako hauek:

1. 2019ko abenduan Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluan onartutako Eremu Sozioekonomikoan Euskara Sustatzeko Planari lotutako helburuei erantzuteko proiektuak eta ekimenak proposatu eta jarraipena egitea.
2. Gizartean eremuaren gainean egiten diren ekimenen jarraipena egitea eta jardun egokiak prestigiatzeko zabalkunde bideak lantzea.
3. Batzordean parte hartzen ez duten eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko eragile nagusiekin garatu beharreko harreman dinamika zehaztea eta gauzatzea.

3. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

EABri buruzko Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek zehazten dituzte EABren Batzorde Osoaren osaerari eta kideen izendapenari buruzko jarraibideak.

2020-2024 ekitaldiko osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2020ko abenduaren 21ean argitaratu zen 2020ko abenduaren 10eko Kultura eta Hizkuntza Politikako Aginduan jasotzen da.

Batzorde-atal bereziei dagokienez, EABri buruzko Dekretuak 8. artikuluan zehazten du batzorde-atal berezien osaera EABren Batzorde Osoak erabakiko duela eta EABren egitekoekin erlasionaturiko jardueretan aintzatespena duten pertsonak izango direla batzorde-atal berezietako kide, EABko kide izan edo ez.

2021 urtean, beraz, hauek osatu dute EAB:

EABren Batzorde Osoa

ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK

Lehendakaria: Iñigo Urkullu Renteria, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

Lehendakariordea: Bingen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Idazkaria: Josune Zabala Alberdi, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria

- Miren Dobaran Urrutia, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- M^a Begoña Pedrosa Lobato, Hezkuntza sailburuordea
- Maite Iruretagoiena Iburguren/Egoitz Laburu Rodriguez, IVAPeko zuzendari nagusia
- Lexuri Ugarte Aretxaga, Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
- Lorea Bilbao Ibarra, Euskara eta Kulturako Foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal, Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
- Txomin Sagarzazu Ancisar, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria
- Miren Segurola Larrañaga, Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkaria
- Andres Urrutia Badiola, euskaltzainburua

EUSKO LEGEBILTZARRAK PROPOSATURIK IZENDATUAK

- Gotzon Egia Goienetxea
- Maialen Gurrutxaga Uranga
- Asier Imaz Telleria
- Xabier Olabarrieta Arnaiz
- Andoni Unzalu Garaigordobil

HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN PROZESUAN ERAGINA DUTEN ARLOETAKO PERTSONA EZAGUNEN ARTETIK IZENDATUAK

- Kike Amonarriz Gorria
- Estibaliz Amorrortu Gomez
- Irene Arrarats Lizeaga
- Mikel Arregi Pérez
- Miren Azkarate Villar
- Paul Bilbao Sarria
- Antton Curutcharry
- Maite Goñi Eizmendi
- Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba
- Iker Salaberria Urkizu
- Jon Sarasua Maritxalar

Batzorde-atal bereziak

Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia

Batzordeburua: Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Idazkaria: Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

Zuzendaria: Maite Goñi Eizmendi

1. Iurdana Acasuso Atutxa
2. Iban Arantzabal Arrieta
3. Xabier Arrieta Goiri
4. Xabier Artola Zubillaga
5. Ander Elortondo Bergaretxe
6. Luistxo Fernandez Ostolaza
7. Gorka Julio Hurtado
8. Igor Leturia Azkarate
9. Ana Vitorica Leoz
10. Elisabeth Pombo Aramendi
11. Lontzo Sainz Nieto
12. Miriam Urkia Gonzalez
13. Josu Waliño Pizarro

Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia



Batzordeburua: Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Idazkaria: Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

Zuzendaria: Irene Arrarats Lizeaga

1. Lorea Agirre Dorronsoro
2. Jaime Altuna Ramirez
3. Uxo Anduaga Berrotaran
4. Maite Asensio Lozano
5. Amelia Barquin Lopez
6. Zalao Basabe Gutierrez
7. Ander Bergara Sautua
8. Idurre Eskisabel Larrañaga
9. June Fernandez Casete
10. Saioa Iraola Urkiola

Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Berezia

Batzordeburua: Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Idazkaria: Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

Zuzendaria: Jon Sarasua Maritxalar

1. Leire Alberdi Ezcurdia
2. Pedro García Larragan
3. Maialen Gurrutxaga Uranga
4. Peio Igeregi Santamaría
5. Asier Imaz Telleria
6. Galder Lasuen Velasco
7. Garbiñe Mendizabal Mendizabal
8. Leire Okarantza Ibabe
9. Iker Salaberria Urkizu
10. Arantza Vázquez Rodríguez
11. Elias Zumalde Barrena

4. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK EGINDAKO BILERAK

EABren Batzorde Osoa

99/2020 Dekretuaren araudipean osatutako eta berritutako EABren Batzorde Osoak bi bilera egin ditu. Lehenengoa 2020ko abenduaren 2an eta bigarrena 2021eko azaroaren 16an. Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak:

1. Euskararen Aholku Batzordearen 99/2020 Dekretua
2. 2020-2024 Legealdirako HPSren lehentasunak
3. EABren batzorde-atal bereziak sortzeko proposamena

4. EABren batzorde-atal bereziek egindako lanak
5. Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024
6. Euskalduntze-alfabetatzearen erronka nagusiak

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 aurkeztu da, Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2ko bilkuran onartutakoa. Agenda hau euskararen normalizazioan aurrera egiteko baliabidea da, eta zeharkako politika modura eragiteko tresna. Legegintzaldi honetarako *2020-2024 Gobernu Programan* euskararekiko ezarritako 3 konpromiso nagusiak berretsi ditu –6. herri-helburuari lotuta: euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea–, eta 4 helburu estrategiko ezarri ditu: herritarren euskararen ezagutza handitzen jarraitzea, herritarren euskararen erabilera handitzen jarraitzea, herritarren hizkuntza eskubideen bermean aurrera egitea eta euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzan sendotzen jarraitzea.

Euskararen zeharkakotasuna eta lankidetzan aintzat hartuta, gainerako politikekiko harremanean pisu handikoak diren 4 ardatz estrategiko ere zehaztu ditu: gizarte berdintasuna, genero berdintasuna, ingurune digitala eta ikerketak.

Agendaren jarraipena egiteko, kudeaketa plana gauzatuko da urterik urte. Agendan ezarri diren konpromisoak gogoan eta helburu estrategikoei lotuta, adierazle neurgarri nagusiak zehaztu dira. Gainera, Jarraipen Batzordea eratu da, Eusko Jaurlaritzako sailtako zein bestelako erakundeetako ordezkariekin.

HABEn egiten ari den eraldaketaren berri eman da. Helduen euskalduntzearen erronka nagusiak aipatu dira, Agendaren 1. konpromisoa eta 1. ardatz estrategikoa kontuan izanda. Helburu nagusia arrakala soziolinguistikoa murriztu eta berdintasun linguistikoa lortzea da; euskara gizarte integrazioarako tresna eraginkorra izan dadila.

Horrela, 1. konpromisoaren barruan eta HABEri dagozkion 4 ekimenei lotuta, 2022rako diru gehiago izango da B2ra arteko matrikularen eta 16-30 urte bitarteko gazteen artean C1era arteko matrikularen doakotasuna sustatzeko, BOGA ordezkaturako duen INGURA autoikaskuntza sistema berria garatzeko, euskaltegi pribatuen finantzazioan irakasleen lan baldintzak hobetzeko, eta etorkin helduak euskara ikastera hurbiltzeko AISA programa indartzeko Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikarako Sailarekin lankidetzan.

Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia

Arestian aipatu bezala, Ingurune Digitala Batzorde-atal Berezia 2021eko apirilaren 26an jarri da abian, EABren Batzorde Osoaren erabakiaren bidez.

Hori horrela, Batzorde horren lehenengo eginkizuna *EUSKARAREN INGURUNE DIGITALA: GOMENDIOAK 2021-2024* dokumentuaren aurkezpenean parte hartzea izan da, aurreko legealdian Batzorde hori osatzen zutenekin, eta hortaz, dokumentu horren egileekin batera. San Telmo Museoa aurkeztu da 2021eko maiatzaren 21ean.

Esan beharra dago, batetik, 2021eko apirilaren 13an Gobernu Batzordeak bere egin duela dokumentua, eta bestetik, EABren Osokoan ere aurkeztu dela dokumentua eta Osokoak ere bere egin duela martxoaren 5eko dataz.

Aipatutako dokumentua garrantzi handikoa da, Eusko Jaurlaritzarentzat, Eusko Jaurlaritzak hartu beharreko bidea erakutsiko baitu ingurune digitalean euskarak behar duen garapena eta tokia eskuratzen jarraitu ahal izateko. Horrek lagunduko du agenda zehazten gutxienez datozen hiru urteotan.

Bilerei dagokienez, Batzorde-atal honek 3 bilera egin ditu 2021ean:

- Maiatzaren 18an, Gasteizen. Honako gai hauek landu dira: Batzorde-atal Bereziaren aurkezpena (egitekoak, funtzionamendu-arauak eta osaera); *Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024* dokumentuaren aurkezpen laburra; eta Batzorde-atalaren legealdiko plana.
- Uztailaren 19an, Gasteizen. Honako gai hauek landu dira: “Applika + ekimena: Gazteen ohitura digitalak eta erreferenteak” ikerketaren aurkezpena; Azpitoluen inguruko proposamenak eztabaidatu eta aztertzeko lan-mahaia eratzeko proposamena; *Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024* dokumentuaren jarraipena: zabalkunde-fasearen berri. Horrez gain, une honetan HPSk ingurune digitalaren arloan esku artean dituen egitasmo batzuei buruzko informazioa eman da: Hizkuntza-teknologia Plana; HABEren autoikaskuntzarako plataforma; eta eskuko telefonoak euskaratzeko sustapen kanpaina. Aipatzekoa da azpitoluen inguruko lantaldea abian jarri ahal izateko proposamenak bidaltzeko bidea ireki dela.
- Azaroaren 3an, Donostian. Honako gai hauek landu dira: SOFTCATALÁ egitasmoa; PANTAILAK EUSKARAZ ekimena; azpitoluen inguruko azpibatzailearen helburuak eta osaera; HPSk esku artean dituen hainbat egitasmori buruzko informazioa.

Azken bileran, halaber, AZPITITULUEN LANTALDEA osatzeko oinarriak ezarri dira eta lantaldea abian jartzea erabaki da. Lantalde horren lehenengo bilera deituta dago, 2022ko urtarrilaren 18rako, Gasteizen.

Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia

Batzorde-atal honek 4 bilera egin ditu 2021ean: maiatzaren 19an, uztailaren 21ean, urriaren 10ean eta azaroaren 29an. Bilera horietan gai hauek landu dira nagusiki:

- Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Berezia aurkeztu: egitekoak, funtzionamendu-arauak eta osaera.
- Hizkuntzaren eta generoaren gurutzaketaren inguruko ekarpenen mapa garatzeko lantaldean egindako lana aurkeztu eta aurrera begirako lanak zehaztu.
- Hizkuntza-politika eta berdintasun-politika publikoen lantaldean egindako lana aurkeztu eta aurrera begirako lanak zehaztu.
- Batzorde-atal bereziaren 2021-2024 lan-plangintza adostu eta zehaztu.

Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Berezia

Batzorde-atal honen lehenengo bilera 2021eko azaroaren 9an egin da. Hauek dira bilera horretan aurkeztutako eta landutako gaiak:

1. Arlo Sozioekonomikoa Batzorde-atal Bereziaren osaeraren aurkezpena
2. Batzorde-atalaren helburuak nahiz funtzionamendu arauak jasotzen dituen agiriaren aurkezpena
3. Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko planaren aurkezpena
4. Batzordekideen iritzi eta asmoak

Bileran luze hitz egin da Batzorde-atalaren helburuen gainean. Izan ere, batzordekide guztiek eman dute beren iritzia, eta denek erakutsi dute elkarlanerako borondatea. Halaber, bat etorri dira guztiak esatean batzordekideen aniztasuna oso lagungarria izango dela jarritako helburuak lortzeko hau da, anbizioz eraikitako bisioa gauzatuz etorkizunerako estrategiak marrazteko.

5. ERANSKINAK

- I. [Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023](#)
- II. [EUSKARAREN INGURUNE DIGITALA: GOMENDIOAK 2021-2024](#)